

ANDER ROS CUBAS

SEKRETU  
ONIMIKOAK.  
OSTERA ERE  
BARAKALDOZ  
ETA EL  
REGATOREN  
JATORRIZKO  
IZENAZ

Barakaldo



Belaute

Kamarika

Kamaraka

Arakaldo

*Barakaldoko Izen Zaharrak [BIZ]. Onomastika Jardunaldien barruan argitu ahal izan genuelako, misterioa ezabatu alegia. Argitzapen hura argitara eman gabe geratu zen orduan, artean sakon landu gabeko hipotesia zelako. Harrezkero, urte batzuk pasatu direlarik, lerrootara ekarri nahi dugu orain, lehen aurkezpen hartako argudioak arreta handiagoz aztertuta eta berri batzuk erantsita.*

## ANDER ROS CUBAS

187

### Bi nukleonimo argi zain

Aurreko idazki batean txantxa antzean, Deustuk bere izenetan hiru misterio zituela adierazi genuen<sup>1</sup>. Txantxa hori gurera ekarrita, Barakaldok bi dituela esan genezake oraingoan. Deusturen kasuan bezala, lehena bere izenarena berarena dugu. Bigarrena, El Regato auzoaren jatorrizko izenarena, jatorrizko beste izenik baldin bazuen.

### El Regatoren jatorrizko izena

Bigarrenetik hasiko gara, *Barakaldoko Izen Zaharrak [BIZ]*. *I Onomastika Jardunaldien barruan*<sup>2</sup> argitu ahal izan genuelako, misterioa ezabatu alegia. Argitzapen hura argitara eman gabe geratu zen orduan, artean sakon landu gabeko hipotesia zelako. Harrezkero,

urte batzuk pasatu direlarik, lerrootara ekarri nahi dugu orain, lehen aurkezpen hartako argudioak arreta handiagoz aztertuta eta berri batzuk erantsita.

Arazo ilun guztietan bezala, ustekabeko aurkikunde edo serendipiti argigarrien zain geratu nahi ez badugu, arazoa eta berau osatzen duten elementuen analisisa egitea da ezinbesteko abiapuntua. Egiazi zor, filologia edota onomastika bezalako diziplina enpirikoetan datuak dira edozein arazo ebazteko giltza. Hauek bilatu egin daitezke, bilatu egin behar dira, bilaketa zuzenagoa edo zeharkakoagoa izan badaiteke ere. Beterie, arazoaren analisi sakon batek bilaketa gidatzen lagun dezake, berau erraztu edo aurkitutakoa hobeto ulertzen eta azaltzen lagundu behintzat.

Izenek, hitz edo apelatiboek ez bezala, ez dute esanahirik, forma hutsa baizik. Zerbait erreferitzen edo seinalatzen dute, zerbait

1 2005: Ros, Ander: "Deustuko toponimia: bertoko uzeneren hiru misterioak | Toponimia de Deusto: los tres misterios de sus nombres" in Txema Luzuriaga, *Deustuko Argazkiak. 1. liburua: Deustuko elizatea | Fotos de Deusto. 1er libro: La Anteglesia de Deusto*, Ediciones Beta, Bilbao, 2-6.

2 Barakaldo, 2018, apirilaren 14a eta 21a.



## Baracald(on)ensis eta aberancanensis (Berango) gentilizioek lehen begi ukaldi batean pentsa genezakeena baino antz handiagoa dutela.

zehatz eta partikularra. Bestalde, izen propio klase ezberdinak daude, zeinek bere ezaugarriak dituela. Toponimoek lekuak erreferitzen dituzte; horregatik, leku-izen ere baderitze. Kontua da lekuak, etxe, lursail, erreka edo zu-biak ez bezala, entitate lauso xamarrek direla. Lekuak entitate ukigarri materialak ez, baina entitate hauen ubikazioak dira. Hori dela eta, "Arrontegiko zubia" edo "Ansioko bidea" moduko talde sintaktiko edo sintagmez baliatzen gara gure paisaiako elementu hauek erreferitzeko. "Arrontegiko zubia" ez da berez toponimo bat, edo odonimo bat nahiago bada, barnean toponimo bat duen edo toponimo batez osaturiko sintagma gramatikal bat baizik, determinazio sintagma bat preseski.

Sortzez sintaktikoki sustantibo determinatu hutsak diren **El Regato** tankerako izenek ez dute barnean toponimorik (edo nukleonimorik kasu honetan), toponimo edo nukleonimo bihurtu badira ere. Kokapena adieraziko lukeen osagai toponimikoa falta dute<sup>3</sup>. Deustun, **La Ribera** auzoa dugu (ora-

in euskaraz **Erribera**, antzina **Ogena**). Kasu berdina da baina jakin ondo dakigu **La Ribera de Deusto** edo **La Ribera de Olabeaga** osoagoen laburdura baino ez dela edo, behar izatera, horrela zehaztu daitekeela. **La Ría** berdin, nahiz eta **La Ría de Bilbao** edo **La Ría de Portugaleta** dela jakin. **El Valle** are adibide hurbilagoa dugu, hurbilagoa zentzu bitan gutxienez. **El Valle de Trapaga** edo **San Salvador del Valle de Trapaga** dugu haren izen osoa. Izendapen herrikoia **El Valle** apelatibo hutsa dugu, **El Regato** bezalaxe baina, **El Regato de Eskaurizan** ez bezala, udalerria izanik, izen osoa ere erraz gorde da herrikoia-aren ondoan.

Aurrera orduko, **Regato** aztergai dugun honetan, zehaztu dezagun oraingoan **regato** apelatiboaren esanahia ez dela 'erreka', 'haran' edo 'ibar' baizik, azken hauek ibai edo erreka baten alboetara zabaltzen direlako, jakina; erreka bihotza dutelako alegia. Adibide dokumental ugari dugu Barakaldotik irten gabe: *un castañal y dos arbolares sitos en el regato de Careaga* (1612), *pedazo de tierra vacía sita en el regato de Careaga* (1651)<sup>4</sup>. Erreka batean, jakina, ezin zuhaitzirik edo lursailik kokatuta egon. Aurreraxeago aipatuko dugu **El Regato de Irauregi** ere.

Galdera, beraz, hauxe dugu: Nongo harana da **El Regato** apelatibo hutsaz izendaturik heldu zaiguna? Horixe da bilatu beharrekoa, ez besterik. Hau argi izan ezean, dokumentazioan **el regato de Careaga** topatzean, Kareaga auzoko erreka erreferitzen ari dela pentsatuko genuke eta ez el valle, ribera (>barrio) de Kareaga; erreka eta ez errekaldea, bestela esanik.

Beste analisi elementu bat gehitu behar diogu aurrekoari. Gure usadioan entitate txikiak izendatzeko joera dugu, gure

<sup>3</sup> Horixe da izenak falta duena, ez besterik: "Da la impresión de que a este nombre le falta algo, ya que no parece normal que una palabra común regato, se usase para llamar a un barrio" (Bañales & Gorrozkategi 2007).

<sup>4</sup> BFAA JCR2670/040, JCR1554/046.

Primero ala barrinda de Barasco  
Segundo ala de Landaburu  
Tercero aladde Regato  
Cuarto ala de Yraurgi  
Quinto ala de Burcena  
Sexto ala de San Vicente  
Septimo ala de Pitauro

bizitza-espazio murriztekoak bestela esanik. Horrexegatik, **La Ría de Bilbao**, **La Ría de Portugaite** eta holako beste izendapen zehatzagoak erabiltzen ditugu. Hau erreka izenetan da nabarien baina ez horietan bakarrik. Koronimoak, lurralde zabalen izenak, ez dira izaten espazioa okupatzen duten bizilagunek jarritakoak, agintariak eta hauen esanetara dauden kartografoek baizik. Esan nahi baita, haranek eta ibaiek, handiak eta luzeak direnean bereziki, erreferentzia puntu bat hartu ohi dute. Horixe dugu **Valle de Trapaga**-ren kasua: **Trapaga** auzoxka bat baino ez zen. Gaur egun autobidearen zutoinetako bat dagoen lekuan kokaturik egona. Kontrako adibideak ere badaude, aurrerago ikusiko dugunez. **Somorostro** edo **Triano** dira etsenplu ezin argiagoak<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Somorostro haran osoko datuak Carlos Glaria adiskideari zor dizkiot.

Argitzapen honekin agerian jarri nahi izan dugu **El Regatok**, erreferentzia toponimikorik baldin bazuen, nonbaiteko harana baldin bazen, erreferentzia hori puntu zehatz bat izan zitekeela, gerora haran osoa izendatzera pasatua baina azkenik galdua edo berrezkatutua.

Bilaketa gidatzeko eta aurkitzeko identifikatzeko, historia ere, noski, lagungarria izan dakiguke, testuinguru kronologikoa zehazten lagundu dezakeen neurrian. Dokumentazio historikoa ahalik eta modurik sakonenean arakatzea beste biderik ez dago. Orduan jakingo dugu El Regato auzoa noiz azaltzen den lehenengoz historian.

Barakaldo baserri auzoxka askok osatzen zuen. Aurrera baino lehen, ordea, argitu behar da **barrio** apelatiboa ez dela oso zaharra, **lugar** baita lehenagoko dokumentazioan erabilia. Baita **sitio**, **puesto** eta halako beste izendapen batzuk ere.

Zehaztapen hau gorabehera, badakigu auzoxka horien gaintek zazpi auzo osatu edo nagusitu zirela XIX. mendearen hasieran. Mobitazio historikoa ere ondo ezaguna zaigu. *Culto y Clero* zerga itogarria modu eraginkor batez kobratzeko herria zatitu edo auzokak auzo handiago edo barrutietan bildu beharra zegoen, berrantolaketa horretatik sortutakoa auzo nagusi bakoitzean kobratzaile bat jarritz. Horrela sortu zen Beurko, Landaburu, El Regato, Irauregi, Burceña, San Vicente eta Retuerto auzoetan banatutako kobraketa sarea. Harrezkero, El Regato izenaz Castañosetik jaisten den errekaren alde bateko eta besteko Urkullu, Tellitu, Eskauritza, Aranguren, Uruga, Gorostiza, Mesperutza eta Bengolea (Telletxearekin noizbait) auzoen batura ezagutuko da. Bañalesek eta Gorrotxategik baieztatzen dutenaren kontra, ez dugu sei auzotako banaketarik<sup>6</sup> ezagutzen, ezta El Regato auzoa meagintzaren bultzadaz sortu zela baieztatze-ko inolako egiantzarik igarri ere. XIX. mende ia osoan zazpi auzotako herria dugu Barakaldo: “los siete barrios de que se compone”<sup>7</sup>. Berandu gabe, zortzigarren auzo bat gehituko zieten aurrekoei, Industriagunean zer kobratua ikusi zutenean: La Fábrica.

Zorionez, auzokide eta alargunen zerrendaketa batean, 1810ekoan<sup>8</sup>, El Regato eta Irauregi auzoak izen osoago batez azaltzen zaizkigu. Aurrenekoaren kasuan bilatu behar genuen erreferentzia toponimikoarekin: **El Regato de Escauriza**<sup>9</sup>. Bigarrenean,

6 XVIII. mendeko fogerazioetan bi dozena auzotan banatzen da herria hasieran eta dozena luze batean bukaeran. 1704koan Aranguren, Escauriza, Gorostiza, Mesperuza y Tellaache, Uruga, Urkullu y Tellitu azaltzen zaizkigu ehun urtegarrenean El Regatok barne hartuko zuen eremuan; 1746koan “Tillitu, entrando todo lo del Regato” eta 1796koan “Regato hasta Bengolea”. Hauetatik auzo moduan aurkitzen ditugun lehenak, XVI. mendearen hasierarako, Urkullu (1504) eta Eskauritza dira (Escabriza, 1533). Gainerakoak gutxiak-gutxiak doazkigu agertzen, azkena azaltzen Bengolea izanik, 1767an.

7 BarUA, C00026-A1, 1887. urtea.

8 BarUA, C80-A1-98.

9 Ez da erraza honelakoetan **el regato** minuskulaz ala maiuskulaz idatzi behar den erabakitzea, onomizazio prozesua gauzatua den ala ez zehatz jakiterik ez bailago. **El Regato** solean, ordea, ez dago dudarik maiuskula biak direla pertinentetarak. Argi dago Eskauritzakoaren kasuan **el regato** elementua toponimoari itsatsi eta onomizatu zela. Irauregikoarenean, prozesu hori burutu bazen ere, ez bide zuten luze iraun.

Aurrera baino lehen, bukaeratik hasiz, azter dezagun Barakaldo nukleonimoaren amaierako -o bokalaren aferak. \*Alde > -aldo bilakaera azaltzea ez da erraza, ez orain ez Iturrizak \*Baratzalde proposamen etimologikoa mahairatu zuenean. Etimologia saiakera zahar haren lau ahulguneetako.

berriz, aurrekoaren indargarri, apelatibo lagungarri beraz: **El Regato de Irauregi**. Izendapenak urte batzuetan bakarrik iraun zuen: 1828. urtean Agustín de Urioste y el Alisal “rematante de las barriadas de los dos regatos” tituluarekin ageri zaigu, hurrengo urteko kontu ematean ikusten dugunez<sup>10</sup>. Ohar gaitezen, Irauregiaren kasuan Cadagua dugula auzoaren ardatza, **regato** apelatiboaz nekez adieraziko genukeen benetako ibaia. Eskauritza, El Regatoko auzoxka bat baino ez da, haranaren buru administratiboa nolabait esatearren. Mesperutza, Aranguren, Bengolea, Urkullu... ez daude Eskauritzan, baina bai Eskauritzako (edo Eskauritza auzoburua duen) haranean edo erromantze lokal zaharreen *en el regato de Escauriza*. **Barrio** apelatiboaz 1747an aurkitu dugu estrainekoz dokumentaturik<sup>11</sup>, urtebete lehenagoko fogerazioko

10 BarUA, C78-B1, 218v.

11 BAHF, Antonio de Tellaache, Prot. Not., 1747, 226v.

“Tillitu, entrando todo lo del Regato” adierazpena<sup>12</sup> indartuz. Badugu lehenagoko erreferentzia bat, 1724koa, baina lausoa da eta ez da, bada, auzo izaera segurua: “en dicho paraje abajo en el regato”<sup>13</sup>. Nolanahi ere, mende berrian sartu arte itxaron behar dugu El Regato eguneko luze-zabal osoa erreferitzen ikusteko.

Ikerketan, honezkero batek baino gehiagok sumatuko zuenez, pausoak ez dira hain lineal eta logikoak, jakina. Izan ere, ikerketa ez da hain helburu zehatz batera zuzendurik egoten. Ikerketa zabalagoak izaten dira onomastikoak. Holakoa da gurea ere. Ikerketa onomastiko zabal batean gauza asko esplikatu ditzaketen izenak kausituko dira, ezer berezirik esplikatzeko baliorik ez duten beste milaka izenen artean nahasirik. Edozein modutan, aurkeztu dugun marko teorikoa argi eta momentuoro presente izateak datuak, agertu ahala, hobeto interpretatzeko, kontestualizatzeko, sailkatzeko eta ezagutzera emateko ezinbesteko laguntza eskaintzen du.

## **Barakaldo: proposamen etimologiko berri baterako oinarriak**

Bigarren misterioa xehetuta, itzul gaitzean argitzen zailagoa den lehendabizikora.

Aurreko saioan<sup>14</sup>, orduan argitara berria zen proposamen baten kariatara<sup>15</sup>, azalpen antroponimikoaren zailtasunak agerian utzi genituen eta bide hori agortzearen alternatibaren bat postulatu. Bide hori ere inorakoa ez zela ikusita, beste bide batetik, beste galdera batetik abiatu beharrean utzi genuen auzia.

<sup>12</sup> BFAA, AH05013/045.

<sup>13</sup> BFAA, JCR1888/003.

<sup>14</sup> Ros (2017).

<sup>15</sup> Yarza (2015).

Badira gure geografian barrena milaka izen ilun euskararen bidez nekez azal daitezkeenak. Honelaxe adierazten zuen funtsezko ideia hau Mitxelena<sup>16</sup>:

“Tengo que insistir desde el principio en que los hechos oscuros o radicalmente inexplicados son muy abundantes en la toponimia y antroponimia vascas” eta jarraian: “Y el elemento extraño en la onomástica vasca no se limita a la influencia románica latina. Nuestra relación con el mundo comenzó bastante antes de los comienzos de la influencia romana y es natural pensar que esta relación tuvo su reflejo lingüístico. [...] Admitiendo, como es inevitable, la existencia de voces vascas que se han ido perdiendo en el transcurso de los tiempos y cuyo sentido por tanto nos resulta imposible de fijar actualmente, quedan aún muchos nombres propios que no se pueden explicar y que tienen resonancias con los de otros pueblos. Lo que es más importante, quedan desinencias y grupos enteros de nombres formados con ellas a los que no es posible dar, a lo que se me alcanza, una interpretación vasca con visos de verosimilitud”.

**Barakaldo** edota **Arrankudiaga** nukleonimoek balio dezakete adibidetzat. Nolanahi dela ere, askoz gehiago dira zatiz edo beren osotasunean euskararen bidez arazorik gabe azaldu daitezkeenak. Hauetako batzuen kasuan, hala ere, gardentasuna

<sup>16</sup> 1953: 8, 11-12.

Marzo de los Peñones y Puntas de los  
 cada Sanio con respecto a la  
 el camino de. Primeramente.

C. Monte Peñon, 13. y Puntas  
 Nuevo ----- 12. y -----  
 S. Bartholome ----- 13. y -----  
 Buxco y Guaco ----- 17. y -----  
 Bagana ----- 10. y -----  
 Zavalta ----- 17. y -----  
 Nagotay la Punta 12. y -----  
 Sanabuen ----- 14. y -----  
 F. Meaga ----- 9. -----  
 Lurquiraca ----- 4. -----

Del gante al Puente de

Notueto ----- 38. y -----  
 Despues del Monte 31. y -----  
 de Cantarosa a la com. 18. y -----  
 C. de y H. de 20. y -----  
 Alamo y Muna <sup>com.</sup> 25. y -----  
 Buxcoña ----- 24. y -----  
 Zubilata ----- 14. y -----  
 El Pto. de Fracagui ----- 38. y -----  
 Pto. de Escavira ----- 55. y -----



itxurakoa izan daiteke, *a posteriori* irabazia alegia. **Saratxo**, Barakaldotik gertuko izen bat ekartzearren, **sarats** ‘Salix sp.’ + **-tzu** sufixuaren baturaz azal daiteke, Barakaldoko bertako **Sarasti** edo **Sarastui** zaharragoa bezalatsu. Arrasateko **Saratxo**, ordea, **Sagastitxo** jatorrizkoaren eboluzioa baino ez da. **Arrigorriaga** ere ezin gardenagoa da baina izena azaltzen duen legendak susmopean jartzen du jatorria. **Arrankudiaga** izena azal lezakeen **Verecundiaca** izenak, **Verecundius** edo **Verecundia** izen latinoetako baten gainean sortuak, **Arrigorriaga** ere holako izen baten berrinterpretaziotik sortu zitekeela iradokitzen digu. Paralelismoen indarretik tiratuz, baliteke Barakaldo ere urrun ez egotea, **-aka** bukaerari dagokionez, izena **\*Baraka** + **aldo** interpretatu behar badugu behintzat.

Mitxelenaren hitz horiek genituen akuilu Barakaldo jatorriz izen euskarazkoa ez zela deplauki idatzi genuenean. Baieztapen hura berretsi nahi dugu oraingoan, kontrakoa ere defendatu behar badugu ere. Kontraesanik gabe, jatorriak hibridoak izan daitezkeenez gero, izena osatzen duten elementuen jatorriaz zein izenaren beraren bilakaeraz den bezanbatean.

Ondo ezaguna da Barakaldo nukleoni moaren lehen agerpena ez dela zuzena, gentilizio baten –zehatzago esateko bi modutara bateratsu dokumentatzen den gentilizio baten– bidezkoa baizik: **baracaldonensis**, **baracaldensis**. Ez da aipatzen, ordea, lehen gentilizio hori agertzen den testuan **aberancanensis** ere badugula hurrenik, egun **Berango** izenean lekukoa utzi duena, eta baracald(on)ensis eta aberancanensis gentilizioek lehen begi ukaldi batean pentsa genezakeena baino antz handiagoa dutela.

**Bokal ezabatu hori, oker berrezar zitekeen jatorri germanikoko -aldo modako izen ugarien analogiaz: Basualdo, Arnaldo, Oswaldoo...**

Usteko **\*aldo** elementua erauzita, **aberancanensis** vs **baracanensis** genuke ekuazioa. Aferesia jasotako **Barakaldo** | **Arakaldo**, **Kamarika** | **Amarika**, **Odelika** | **Delika** tankerako pareak datozkigu orduan gogora. Aferesi erradikalago batez, aipatu **Verecundiaca** Lombardiako **Gonzagaren** jatorria ez ote zen galdetu zion Holderrek<sup>17</sup> bere buruari. Eta horiek gogoan, Barakaldo **\*Marakaldo** ez ote zitekeen galdetu genion guk geureari; horrek, berriro ere aferesia lagun, **Kamaraka** oronimoa zekarkigukeelako azterbidera.

## Hasierako kontsonantean dagoke gakoa

Horrelaxe mamitu zen, goian aipatu ditugun **BIZ** jardunaldien barruan, “zergatik ez Marakaldo” haizeratu genuen galdera, aipatu paralelismoek eta euskararen historian eta geografian barna oso emankorra izan den **b/m** alternantziak Barakaldo izen egoskorrari argi zirrikitu bat aurkitzen lagun ziezagukeelakoan.

<sup>17</sup> Alfred Holder, *Alt-celtisch Sprachschatz, I: A-H*, Leipzig, Druck und Verlag von B.G. Teubner, 1896.

Barakaldon ere ugari dira jaso ahal izan ditugun b/m alternantziadun testigantzak. Zernahi gisaz, moderno samarrak dira eta ezin dira aurrekaritzat hartu. Jasoetariko zaharrena **Mingolea** dugu (1786), **Mingola** forman lehenago (1755), **Bengolea** errota- ren aldaerak, jakina. Alternantzia hori, ondo ezaguna denez, ez da euskararen barruan bakarrik ematen. Adibide toponimiko pareak aipatzearen **Peña Cabarga** | **Camargo** kan- tabroa aukera liteke.

Kontua da M-dun forma batek orain arte kontuan hartu ez den azalpen bat ahalbi- detzen digula. Lehengo galdera birformu- latuz “zergatik ez Marakalde” galdetuko ba- genu, Gipuzkoako **Ernio** eta **Ernialde** pareak letorkiguke zuzenean burura, **Cabarga** eta **Camargoren** edo hurbilagoko **Jata** eta **Ja- tabe** kasuetan bezala, oronimo eta nukleo- nimo banak osaturiko pareak. Hiru kasuetan, herri batek bistan duen mendi batetik apa- latzen du izena.

## Bukaerako bokalean dagoke belautea

Aurrera baino lehen, bukaeratik hasiz, az- ter dezagun Barakaldo nukleonimoaren amaierako **-o** bokalaren aferra. **\*Alde** > **-aldo** bilakaera azaltzea ez da erraza, ez orain ez Iturrizak<sup>18</sup> **\*Baratzalde** proposamen eti- mologikoa mahairatu zuenean. Etimologia saiakera zahar haren lau ahulguneetako bat zen hondarreko bokalaren arazoa.

Lehenago esana genuen bezala, ez dauka arrazoia Valeriano Yarzak<sup>19</sup> baracaldonen- sis gentilizioak **-on** oinarria eskatzen duela dioenean. Izan ere, **-o+ensis** > **-ensis** era- torbide erregularra den arren (Luco > lucen-

Ustezko \*aldo elementua erauzita, aberancanensis vs baracanensis genuke ekuazioa. Aferesia jasotako Barakaldo | Arakaldo, Kamarika | Amarika, Odelika | Delika tankerako pareak datozkigu orduan gogora.

sis; Londino > londinensis...), **-o + ensis** > **onensis** ere oso zabaldua baita, **-on(a)** oina- rridun izenen (Pampilona > pampilonensis, Narbona > narbonensis...) **-onensis** forma- ren analogiaz: Barcino > barcinonensis, Tar- raco > tarraconensis, Iluro > iluronensis... Baracaldonensis formaren atzean, hortaz, bai **Baracaldon(a)** bai **Barakaldo** egon zi- tezkeen, baita **Barakalde** ere, are zuzenago baracaldensis formatik.

Done Miliagako 1051ko dokumentu eza- guneko baracaldensis formaz gain, garai bertsuko beste dokumentu batean, Elo- rrioko San Agustín Etxebarriakoan, bara- caldensis aldaera agertzeak **baracaldensis** > **Barakaldo** > **baracaldonensis**<sup>20</sup> berrin- terpretazio analogikoaren aukera sinesga- rriago egiten du. Izan ere, esan berri dugun bezala, oinarriaren azken bokala ezabatzen duen gentilizioaren lehen forma da erre-

18 *Historia General de Vizcaya*, V. I, 1785, 290.  
19 2015: 222.

20 Hizkuntzalaritza historikoan > eta → zeinuak bereizten dira bilakera foneti- koa eta analogikoa hurrenez hurren adierazteko. Aipamen puntuala da gurea eta ez dugu zehaztapen tekniko horiek irakurle nahasiko.

gularra. Bokal ezabatu hori, oker berrezar zitekeen jatorri germanikoko **-aldo** modako izen ugarien analogiaz: Basualdo, Arnaldo, Oswaldo... Berdin gerta zitekeen abercansensis > Berango berrinterpretazioarekin, jatorrizkoa **Beranga**<sup>21</sup> kantabriarra balitz.

Beste aukera bat goian aipaturiko -onensis analogikoa -o ez beste bokaletako temetara ere zabaldu izana da. Bide horretatik ere izan genezakeen -aldo oker berrezarria. Honen aldeko motibazio bat, -e izenen urritasuna izan liteke; kontu jakina baita -eta analogia- ren funtsa- maiztasun urriko elementuak indar analogiko berdintzailearen biktimarik eta elikagairik behinena direla. Ez zait orain adibiderik bururatzen baina bilatzea mereziko luke balio handiko frogabide erantsia babilizateke hain froga gutxiko eremu honetan. Aurretik esan genuen bezala, irregulartasuna eta joera erratikoa da gentilizioen eratorbidetaren ezaugarri nabaria<sup>22</sup>.

## Kamaraka mendia erreferente

Bukaeraz esatekoa genuena esanda, bihur gaitzen hasmentara. Marak(a) edo Barak(a) oronimo bat postulatu dugu hipotesi berriaren abiapuntu. Ezaguna denez, izen horretako mendirik ez dugu baina bai goraxeago aurreratu dugun **Kamaraka** bizkaitar-ara-barra, aferesiz **Maraka** eman zezakeena.

Oronimo honek arazo bikoitza aurkezten digu, alabaina. Batetik, Arrankudiaga gaineko Kamaraka mendi hau bigarren mailako tontor bat da, muntaz behintzat Ernio, Jata edo Peña Cabarga aipatuekin ezin aldera dai-

tekeena. Bigarren arazoa fonetikoa da: nola azaldu hitz hasierako **Ka-** silabaren galera.

Bi arazo horiek ebazteko proposamenak jorratzea da hemen aurkezten dugun lanaren bigarren xedea. Jakitun gara bi arazo hauek bi hipotesi independente eskatzen dutela eta alde horretatik ia bigarren graduko berreiriketen pareko proposamena dela gurea.

Lehen arazoa konpontzeko<sup>23</sup>, Kamaraka jatorriz gaur egun **Ganekogorta**<sup>24</sup> izenaz ezagutzen den mendia edo mendigune osoa pentsa daiteke. Izan ere, Ganekogorta kortabaso edo saroi baten izena da berez, ez mendi batena; jatorriz dasonimoa eta ez oronimoa, alegia. Alonsotegiko **Beagorta**, **Enekogorta**, **Oreingorta** (**Lingorta** moderno)... edo Barakaldoko bertako **Mas-korta** eta **Askagorta** lekuko dituen sail ugariko beste bat. **Belaute** izenaz ere eza-gutu izan da mendia baina izen honen etimologiak berriro ere hau sortzez behintzat oronimo nagusia ez dela iradokitzen digu. Tolosako **Belabieta** ezagunak, ezaguna historikoki Nafarroarako eta kostalderako pasabidea izan delako, **Belauriate** izena du dokumentatua 1399. urtetik, egungo forma 1956.etik dokumentatzen ez den bitartean. Eleizalde<sup>25</sup> bien arteko zubiarena egiten duen **Belabiate** jaso zuen. I. Goikoetxeak eta J.I. Elosegik<sup>26</sup> etimoan **belauri** elementua zehazki diskriminatu bazuten ere, honen interpretazioan ez zuten asmatu. Belauri ez da pertsona izen bat **belau**n hitzaren konposizio forma baizik, **belau**niko | **belau**-riko pareak argitzen diguna. **Belauriate** eta

21 Abandoko Zorrotza auzoko Beranga baserri izena, ibura modernoagoko domonimoa baino ez bide da. Kasu honetan, analogia Durango, Kuartango bezalakoetatik hedatua dateke. **Berango** | **Beranga** bikotearen parekoa dugu, distantziak distantzia, **Durango** | **Zumarragako casa de Duranga** (1775).

22 Aski ezaguna da gentilizioen irregulartasuna: "El Diccionario de Autoridades solo recoge [...] unas ciento y pocas voces gentilicias, y en ellas la irregularidad es la nota predominante" (Dolores García Padrón, "La especialización semántica de los gentilicios y su descripción en el Diccionario de Autoridades", *Cuadernos del Instituto Historia de la Lengua* 9, 2014, 129).

23 Egia esatera, arazo potentziala baino ez da. Baliteke Arakaldo Barakaldotik, edo alderantziz, sortua izatea, izen horretako leinuaren hedaduraz kasurako. Arakaldo balitz izen emalea, nahikoa genuke 697 metroko egungo Kamaraka, eta ez 999 balizko Kamaraka, izatea erreferentea, gure Ernio edo Jata.

24 1458ko konkordia batean aurkitu dugu izena lehenengoz dokumentaturik (BFAA, BILBAO ANTIGUA 0045/001/002), baina bestela ez da XVIII. mendeara arte ia inoiz aipaturik ikusten.

25 "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas", *RIEV* 14 (2), 1923, 317.

26 *Tolosako leku izenak*, Tolosako udala, 2006.

Kamaraka eta Kamarika,  
sufixua gorabehera, izen  
bat bera dira sortzez,  
Kantabriako Cabarga  
bera hain zuzen ere.  
Goian aipatu Amarika  
larrabetzuarra eta  
Santurtziko Mamariga ere  
apika, hurrenez hurren  
forma aferetikoa eta  
asimilatua baldin badira.

gure **Belaute** (< \***Belaunate**) belaun<sup>27</sup> edo sigi-saga formako atea dira. Ez da ezer berreraiki behar, ordea, Gerardo López de Gureñuk Barrundian jasoa du **belaute** hitza: “Tres piedras altas colocadas verticalmente a la entrada de una heredad cerrada de manera que sólo permitan a la vez el paso de una persona e impidan el del ganado”<sup>28</sup>. **Belaun(t)esi** forma paraleloa, **ate** ‘pasabide’ren ordez **hesi** ‘itxitura’ duena, orokor xamarra izan bide da Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan bildua izan baita. Zollon **Belauteko entradie** esaten zioten Ustara auzokoek, Belautetik hurbilenekoek hain zuzen ere, mendiaren goialdeko pasabide bati, mendiari izena ematen diona urrean; oker ez bagaude, Zollo eta Okendoko mugatik gora egiten duen bidearen buruan.

Kamaraka eta Kamarika Ganekortatik bistako bi muino hurbileko dira, Arrankudiaga eta Audio arteko mugan lehena eta Oken-

27 Gaur egun, **ukondo** erabiltzen da gehiago erreketako-eta angelu zorrotza adierazteko, inguruko hizkuntzetan ere **brocha acodada**, **brosse coudée** eta holakoak.

28 “Voces alavesas”, *Euskera* III (2), 1958, 202.

do eta Gordexola artekoan bigarrena<sup>29</sup>, hain zuzen ere.

## Kamaraka eta Kamarika: aztarna zeltikoa

**Kamaraka** eta **Kamarika**, sufixua gorabehera, izen bat bera dira sortzez, Kantabriako **Cabarga** bera hain zuzen ere. Goian aipatu **Amarika** larrabetzuarra eta Santurtziko **Mamariga** ere apika, hurrenez hurren forma aferetikoa eta asimilatua baldin badira<sup>30</sup>. Izen zeltiko ezaguna da lehena, latineztatua bigarrena. Kamarakak egungo Ganekogortan | Belaute parearen onetan izena nola galdezakeen argituta itzuliko gara gure oronimo inportatuaren jatorriaz eta izaeraz zerbait esatera.

Gurean zeltismo onimikoak ibai eta mendietan kausitzen ditugu oroz gain. Leongo **Telesno** mitikoarekin antz handia duen **Toloño** dugu kasu argi bat<sup>31</sup>. Nerbioi eta Deba ibai izen edo potatonimoak ditugu hidronimotan ezagunenak, bestalde. Ez dira nolanhikoko mendi eta ibaiak, beren inguruetakoa naugusienak baizik. Gauzak horrela, Kamaraka Nerbioi eta Salzedo arroak batzen edo banatzen duen 999 metroko Ganekogorta edo Belaute izatea espero genuke izendatua izateko aukeratua eta ez Arrankudiaga eta Audio udalerrien arteko Kamaraka apalagoxea.

Dokumentazio zaharrik ezean<sup>32</sup>, izen translazio honen alde dakarkegun aldeko testi-

29 Sodupera begira, Zalduegi izenekoetik beherako 510 bat metroko altuerako tontor baten azpiko iturburu eta ondoko parajea dira izen horrekin erreferituak kartografian baina kartografia berean izendatu gabe ageri den tontorra bera izan liteke lehenik horrela izendatua. Beste maparen batean, ordea, 515 metroko bertako muinoa seinatzen du.

30 Ausartegia izan daiteke Gipuzkoako **Arakama** ere ekuazioan sartzea baina birtualitate ona lekarke: beste -(a)ma ilun bat argitzea. Izan ere, Luis Mari Zalduearen superlatibo zeltikoaren proposamena hiperbolikoa baita.

31 **Anboto** ere aipatua izan da jatorri zeltikodun mendien artean, Ambatus antroponimoa oinarria lukeena. Guk orografian han hemen sakonunea adierazteko erabiltako **enbutu** apelatiboarekin lotuko genuke. Errioxako Cameros mendizerrako **Emboto** genduke adibide paralelo bat. Sorriako **Hoyos de Amboto**, hortaz, tautonimo bat genduke.

32 Bittor Arbizu lagunari zor diot Kamaraka oronimorako Audioko toponimiaz bere tesi doktoraierako jasotako 1630ko lehenengo datazioaren datua.







gantza bakarra, antzeko kasuen paralelismoa da. Ohikoa da eremu edo entitate zabalek bertako eremu edo entitate txikiago batean gordetzea beren jatorrizko izena. **Somorostro** dugu hurbil-hurbileko adibide bat. Zazpi herrik osatutako haran bat izendatzeko baliatzen zen izena, gaur egun, zazpi horietako udalerrri bakarra, Muskiz izen ofizialak azpiratua. Triano koronimoak, bestalde, auzo bat besterik ez du gaur egun izendatzen, **Campa de Triano** izenekoan altxatua, Ortuella eta Abanto udalerrien mugak erdibitua.

Berriro ere Eskauritza gogora dezakegu. Eremu txiki batek handi bati eman zion izena baina izendapen zabaldu hori aldatuta, eremu txikiaren izenean gorde zen azkenik.

Onomen erreferenteen aldaketek, berauek murrizteko zein zabaltzeko motibazio historiko ezagunak dituzte askotan. Goian aipatu Toloño ere adibide argia litzateke, botere faktikoetatik inposatutako errelatoa zinezkoa balitz, jatorriz Toloño mendilerro osoa balitz alegia. Gaur egun, Toloño Santa María edo Nuestra Señora de los Ángeles monastegiaren hondarrak dautzan mendia baino ez da eta mendilerro osoa izendatzeko testigantza apurrek sorburu eta testuinguru historiko ezaguna dute. Pirinioak izendatzekolehenago **Auñamendi** proposatua zen bezala, Errioxako Sierra de Cantabria Toloño berrizendatzeko ekimena bultzatu zen XIX. mendearen erdialdean Gasteizko fueristen zirkuluan. Cantabria mendizerraren azpian jaiotako Francisco Navarro Villoslada eleberrigilea Gasteizen gobernari zibilaren idazkari karguan zegoela mamitutako asmakizuna izan zen, Arabako Diputazioko Saracibar kartografoak burutu zuen lurralde historikoaren mapan konsakratu nahi izan zutena.



**Kamaraka izen zeltikoa da sortzez, -aco/-a sufixuak salatzen duenez: “Belonging to Camarus’, an -ako- derivative from a Graeco-Latin PN Cammarus**



Oñatiko **Artia** edota Gipuzkoa-Araba-Nafarroako **Altzania**<sup>33</sup> eta beste adibide asko ekar litezke hizpidera. Bilbao emendatu zuten elizateen kasuan (Albia, Deustu, Begoña), elizateen beren desagerpena izan zen erreferenteen translazioaren zioa. Udalerrri-elizate horien desagerpenak nukleonimoa udalerriburuekin identifikatzea ekarri zuen. Barakaldoko Eskauritza auzoaren kasuan, goian argitu dugunez, bestelako motibazio historikoa daukagu, herria zeregin fiskaletarako berrantolatzea.

Gatozen orain Kamaraka izenaren gainean zertzelada batzuk ematera.

Kamaraka izen zeltikoa da sortzez, **-aco/-a** sufixuak salatzen duenez: “Belonging to Camarus’, an -āko- derivative from a Graeco-Latin PN Cammarus”<sup>34</sup>. Onomastika

<sup>33</sup> Gipuzkoako adibideak oro lurralde horretako toponimia -mendialdeetako oso bereziki- bere etxea bezala ezagutzen duen Jose Luis Ugarte lagunari esker eskuratu ditut.

<sup>34</sup> Alexander Falileyev et al., *Dictionary of Continental Celtic Place-Names*, CMCS Publications, 2007: 60. Mugaruzak (1997) gauzak nahasi egiten ditu: Camaracum ez da antroponimo latindarra, ezta -aca jatorri bereko sufixua, Camaracum nukleonimo zeltiko baten forma latinezitua bada ere eta oinarriz antroponimikoa greko-latinoa omen badu ere.

erromatarrean ere zabaldu ziren holako izenak, askotan **-iaco/-a** formapean. Kronologia dute batzuek eta besteek ezberdina, jakina. Camaraca, Camaraco ezberdinak daude han hemen, penintsulan zein Europan barrena. Ezagunetarikoa **Camaracum** galo-erromatarra da, egun **Cambrai** dena, Frantzia baina Bruselatik gertu. Nerbioen hiriburua zen eta ez litzateke baztertzekoa izango gure Kamaraka haren oroimenez<sup>35</sup> izendatu izana: "The city that superseded Bavai as capital of the civitas of the Nervii. Situated on the left bank of the upper Escaut, it was at the intersection of important Roman roads"<sup>36</sup>.

Kamaraka ezin da Kamarazabal-ekin alderatu, azken honetan, baina ez lehenengoan, **kamara**, jatorriz zukeen esanahia zuela, apelatibo aise diskriminatzen delako.

Catalunyako **Camarasa** nukleonimoa ere jatorri berberekoa dela proposatu izan da baina jatorri arabiarra ez da baztertzen. Txileko Andeatako Camaraca oronimoak<sup>37</sup>, jakina, ez dauka zerikusirik ahotan darabilgun gure formarekin. Orobat, aurreraxeago aztertuko dugun Laudioko **Kamarako** domonimoa.

Aspaldihanditik, **Kamarika** ptolomaikoarekin lotu izan dute batzuek<sup>38</sup> Plinio zaharraren **Fontes Tamarici** Biak Palentzian daudela dirudien arren, Montaña Palentina deritzon

eskualdean, hiria Cervera de Pisuerga inguruan zegokeen eta iturria, egun La Reana deitua, Velilla del Río Carriónen. Ez bereizketa ez kokapena, ordea, ez dira guztiz adostuak oraindik: "LN: La Serna (Velilla del Río Carrión) (ESP). Tamarici (var. -ricae, -ritae, tamamarice, -cae) Pliny 31,23; Καμάρικα (var. -ίκα) Ptol. 2,6,50; Cambracum Rav. 4,43. If Celtic, to camaro-"<sup>39</sup>. Nahasketak ez dira hor amaitzen, sarri Victoriaco hiriarekin ere nahastu izan da, Gasteizekin alegia; beharbada Ptolomeok Camarica kantabriarra Vellicaren ondoan aipatzen duelako eta honek Victoriaco ondoko Veleia gogorazi: "CAMARICA, a city of the Cantabri, called also Victoria"<sup>40</sup>.

T-dun formak aldaerak izan daitezke<sup>41</sup> baina oinarri hidronimiko independente batekoak ere bai, Palentziako aipatu iturriari, Galiziako **Tamara** eta **Tamaris** (egun **Tambre**, **Tamesis** ingelesaren kidea, bistan denez) eta Albarracíneko **Tamarite de Litera**<sup>42</sup> kasurako. Kasualitatea izan zein izan ez, aldizkako iturriak dira Tamarit(e) izena daramaten bi hauek eta besteren bat<sup>43</sup>. Manuel de Assas-ek ustezko **tamarit** apelatiboak holako iturriak izendatzen dituela iradoki zuen baina horren aldeko ebidentziarik ez dago<sup>44</sup>. Ezer egotekotan, **-it(e)** elementuan beharko luke, izenari Terueleko Albarracíneko **Fuente Burlona**, **Fuente Mentiroso** edo Begoñako **Iturrigaldu** izenen bigarren elementuen zentzua emango ziokeena. Forma aldetik **Piedra(h)ita** toponimo ezagunean duguna

35 Hidronimoa herri izenikide horretakoek, eta ez geografo kultistek, ekarri bazuten.

36 Richard Stillwell et al. (eds), *The Princeton Encyclopedia of Classical Site*, Princeton, N.J., Princeton University Press, 1976, 188.

37 Inolako oinarririk gabe hemendik joandako euskaldun batek bataiatua izan zitekeela iradokitzen du Muguruzak (1997). Oronimo biak, formaz berdin-berdinak izanik ere, ez dute elkarrekiko loturarik. Formaz gain beste ezaugarri bat konpartitzen dute, alabaina: "Aquí creo necesario considerar en este punto el sugerente nexo - registrado ya por investigadores de diferentes áreas de los Andes - que se da entre hitos orográficos del paisaje tales como cerros de formas particulares, o especial altura, o de ubicación aislada - tal como es el caso de nuestro cerro Camaraca - y el topónimo asignado a la localidad que existe en su entorno, lo cual expresa en última instancia el vínculo etnogénético de una comunidad respecto de su cerro tutelar" (Helena Orta, *El señorío Arica y los reinos altiplánicos: complementariedad ecológica y multietnicidad durante los siglos pre-conquista en el norte de Chile (1000-1540 d.C.)*, Universidad de Chile, tesi doctorala, 2010).

38 Enrique Flórez, *La Cantabria. Disertación sobre el sitio y extensión que tuvo en tiempo de los romanos la región de los cántabros, con noticia de la regiones confinantes y de varias poblaciones antiguas: discurso preliminar al tomo XXIV de la España Sagrada*, Madrid, Antonio Marin, 1768, 78-79.

39 Falleyev et al., *op. cit.*, 116.


40 J. Lempriere, *A classical dictionary, containing a copius account of all the proper names mentioned in antient authors*, London, 1834.

41 Cantabriako Camargoren pareko **Tamargo** herria dugu Asturiasen, tamarikoen gentilitatearekin lotu izan dena (Xulio Concepcion, *Diccionario etimológico de toponimia Asturiana*, edición revisada y actualizada, Hifer Editor, Oviedo, 2017).

42 Pascual Miguel Ballestín, Pascual: *Toponimia Mayor de Aragón. Ciudades, villas, lugares, aldeas, ríos, montañas y territorios*, Zaragoza, Gara d'Edicions, 2015.

43 Gipuzkoan halakoak dira Gabiriko **Eztanda** eta Mendaroko **Kilimon** izenekoak, Jose Luis Ugartek jakinarazi didanaz.

44 *Crónica de la provincia de Santander*, 1867.



C78-B1-los dos regatos-1829-218v

litzateke hautagai perfektoa baina honek duen '(f)inkatu' esanahiak ez du balio eta hibrido ezinezko batean pentsatu beharko genuke. Akaso ezaugarri horrek berak egiten zituen iturri horiek deigarri eta ondorioz izendagarri zeltiarrentzat. Horrek esplikatu lezake han hemen izen tipiko soil batez iturri ezberdinak izendatuta ikustea eta kasualitatez hauetariko bat baino gehiago iturri aldizkakoak izatea. Gogoratu behar da superstizioa lotzen zela intermitentziarekin, Plinio zaharrak berak, anekdota tragikoa eta guzti, detailaz kontatzen duen bezala.

**Camargue**, Frantzia hegoaldeko Arlesen, azpian **Camarica insula** duela ezarri da baina Philippe Leveau-ek ondo zehazten duenez erdi aroko latinaren erabidea da hori eta "elle repose sur un empilement d'hypothèses"<sup>45</sup>. Lehenik dokumentatzen dena, 859. urterako, "in

insulae quae Camarias dicitur" baino ez dugu. Bestalde, Annia gentilitate bateko A. Annius Camars ageri da epigrafian Kristo ondoko I. mendean<sup>46</sup>. Charles Rostaing-ek<sup>47</sup> egiantza ematen badio ere, Leveau-rekin gaude dioenean ezen "En fait, l'origine du toponyme Camargue est done incertaine"<sup>48</sup>.

Assas-ek, bestalde, Santander probintziaren bere kronikan Liébanako **Cambarco** dakarkigu gogora, Ptolomeoren Camaricarekin identifikatzeko, eta Holderrrek Asturiaseko Salas-en beste **Cabarcus** epigrafiko bat identifikatzen<sup>49</sup>. Nolanahi ere, formarik ugariak aurrekoekin lotutako **Camariacus** eta **Cambariacus** ditugu, Frantzian denak ere.

46 Robert Mowat, "Le tombeau d'un légat propréteur d'Afrique a Arles. Conjecture sur l'origine du nom de la Camargue", *Bulletin épigraphique* 4, 1884, 53-61; L.A. Constans, *Arles Antique*, Paris, E. de Boccard Éditeur, 1921, 91.

47 *Essai sur la toponymie de la Provence: depuis les origines jusqu'aux invasions barbares*, Paris, d'Artrey, 1950 [1973], 434.

48 "La cite romaine d'Arles et le Rhone: La romanisation d'un espace deltaïque", *American Journal of Archaeology* 108-3, 2004, 353.

49 *Op. cit.*, 659.

45 "La centuriation des territoires des cités romaines d'Arles (Arelate) et d'Aix-en-Provence (Aqua Sextiae). Un retour historiographique", *Revue Archéologique de Narbonnaise* 43, 2010, 134.





Nekez jakin dezakegu, bada, inguru jakin batean, Barakaldon berba baterako, eta denbora tarte ez zehatzegi batean zein ziren euskararen sistema prosodikoa.



Forma latinoak, **-ica/-o** sufixudunak, antroponimo batez osatuak badira ere, ez dago hain garbi zeltierazko jatorrizkoetan. Camarica **Camar** antroponimoaz osaturiko izena dela esan izan da, baina orobat teonimoa eta batez ere **camm-**, **camb(o)** 'oker' elementu zeltikoa duela oinarria. Bestalde, zeltieraz badaude **-ica** sufixuko izenak: **Pisorica**, **Asturica**, **Gabalaica**, **Tullica**... Ez da gure eginkizuna afera horretan sartzea. Barakaldoren etimologia izan daitekeen Kamaraka oronimoaren ahaideak eta hauen jatorri eta nondik norakoak hizpidera ekartzea izan da gure asmo bakarra.

Peña Cabargatik gertuko **Cabárceno** ere formaz aurrekoen sailekoa dela pentsa genezake. Hala, oronimo batek eta bi nukleonimok osaturiko triada bat genuke, Kamaraka | Barakaldo | Arakaldo edo Aitz | Aizpeitia | Aizkoitia<sup>50</sup> kasuetan bezala baina

50 Laster emango da Azkoitia eta Azepeitia herrien artean zegoen Jandone-aniz edo San Juan de la Peña ermita desagertuko irudiaren aurkikuntza eta horren kariatara bi nukleonimo gipuzkoarren sorrera argituko, Juan Bautista Mendizabatek aspalditxoan iradokia zuena berretsita.

eldarnio soila izan daiteke. Itxura batean, Italiako **Cavarzano** (< Capertius + -ano)<sup>51</sup> bestelakotik dagoke hurbilago.

## Eta Kamarako laudiotarra?

Kamaraka eta Kamarika kokatuta dauden eskualdean, beste **kamara** askotxo identifikatuzakegu geografian, Kuartango eta Oñatira zabalduta, eta Bernedora ere akaso<sup>52</sup>. Goian aipatu Laudioko Kamarakorako balio lezake kamara 'ganbara' esanahiak, domonimo baten aurrean gaudenez gero<sup>53</sup>; mendialdean, alabaina, nekez izan daiteke, ez balitz, zentzu figuratuan erabiltzen den bezala, 'buru' balioarekin. Hola balitz, bat letorke Rostaingek<sup>54</sup> *\*kamar* zeltiko bati ematen dion zentzuarekin: "on désignait sous le nom de \*Kam-ar- ce qui au Moyen-Age sera appelé podium [puy]". Rostaingek esplizitatzen ez badu ere, Kamm- zeltikoa 'kurbatu, kakotu' zentzua ematen zaiona eta kasu honetarako berak ematen dion 'hauteur arrondie' zentzua bat letozke **belaun** apelatiboak toponimian hartzen duen zentzu bikoitzarekin. Belaute izenean ikusi dugun bezala 'kakotua' den bitartean, beste batzuetan 'muino'ren balioa hartzen du. Gorputz atalekin hainbatetan gertatzen den bezala, forman oinarritutiko metaforak baliatzen dira paisaia deskribatzeko. Belaunaren kontornoaren lerroa, nondik begiratzen zaion, konbexoa edo konkaboa izan daiteke, ganbila edo ahurra.

51 Giovan Battista Pellegrini, *Toponomastica italiana*, Milano, Editore Ulrico Hoepli, 2008, 311.

52 Hauek dira Geoeuskadin aurkitu ditugunak: **Kamaramuño** (tontorra, Oñati), **Kamarazabal** (tontorra, Zuia), **Kamarasoro** (basoa, Oñati), **Kamarabe** eta **Kabarrate?** (parajeak, Kuartango), **Kamaralde**, **Kamaroste** (parajeak, Amurrio), **Kamarotea** (erreka eta erreka-zuloa, Bernedo), **Gamaratxe?** (erreka?, Gordexola).

53 Gipuzkoako **Ganbara**, **Ganbaratxo**, **Ganbaratxe(a)** baserri izenekin lotu behar da, zalantzarik gabe, ganbaratxoak ziren edo ganbaratxoak zuten baserriak.

54 *Op. cit.*, 128.

## Fonetikaren argibidea: Ka- silabaren galera

Arazo fonetikoak ere badugula aurreratu dugu: Kamarakatik Marakara murriztea. Ez da hau interes gutxiagokoa. Aitzitik, zirraragarria da azpiko aferak zabaltzen duen eszenatokia.

Euskara historiko eta berreraikiarekin guztiz bat dator hasierako kontsonante herskarien galera. Martinetek lehenik eta Mitxelenak gero herskarien banaketari buruz egin zuten proposamenak herskari hasperendunak kokatzen zituzten lehen kokagunean. Bi maisu hauen teoriak birformulatuak eta finduak izan badira ere, azken urteotako saioek (Martínez Areta, Hualde, Egurtzegi, Lakarra...) berretsi egin dute hitz hasierako herskarien izaera hasperenduna eta hauen leniziorako lehen pauso bezala ikusi. Honela mintzozen Mitxelena Martineten hipotesi orduan haizeratu berriaz:

“¿Qué pensar de esta teoría? Ante todo, que tiene en su favor algo muy importante por razones de principio: su coherencia y su amplitud, que abarca la totalidad de los aspectos del problema. La caída de oclusivas iniciales, que ha sido repetidamente sostenida, encuentra ahora su puesto en la evolución desde un sistema antiguo postulado a uno moderno conocido”<sup>55</sup>.

Galera hori durduzagarria da fonetikaren ikuspegitik. Nolanahi ere, hitz hasierako fonemen eta batez ere fonema



Euskara historiko eta berreraikiarekin guztiz bat dator hasierako kontsonante herskarien galera.



kontsonantikoaren eztabaida luzean, abiapuntu komuna fenomenoaren bitxitasuna da. CV eta CVC silaba ereduak dira alde askotatik munduko hizkuntzek lehenetsiak. Hasierako kontsonantearen galerak, CV- eredu lehenetsia hausten duen aldetik, esplikazio berezia behar du. Bitxitasuna gorabehera, ondo testaturiko eta orain ondo ulertutako fenomeno da. Hizkuntza askotan testatu da hitz hasierako herskarien galera baina Australiako hizkuntza aborigeneetan da fenomeno zabalduen, ezagunen eta ondorioz sakonen aztertua. Hain da errotua fenomenoak, non hizkuntza batzuetan, hasierako kontsonantea galduta, hitz guztiak edo gehientsuenak bokalez hasten diren. Euskarak ere, bere txikian, adibidetegi polita eskaintzen du: **(k)upel, (k)okots, (k)orapilo, (g)oroldio, (k)ume...** eta azalpen bera eman zai: “La misma frecuencia extraordinaria de iniciales vocálicas, con o sin *h*-, hace suponer, según Martinet, que un cierto número de fonemas iniciales ha podido desaparecer o confundirse en *h*- en época preliteraria”<sup>56</sup>.

55 1951: 575.

56 Mitxelena 1950, 574.

Galera ez da izaten tupusteko gertaera, graduala baizik<sup>57</sup>. Etapa edo pauso ezberdinetan gertatzen da lenizio edo fonazioan ematen den indar galtze bat izaten da funtsean, azken emaitza galera izan dezakeena. Prozesua hau azentuarekin loturik egoten da, silaba atonoetan ematen den aldetik. Hitz hasierako silaban gertatzen bada galera, azentua bigarren<sup>58</sup> dagoela suposatu behar dugu edo, besterik gabe, konposatuetan bigarren elementuaren lehen silaban.

Azken urteotan, euskararen azentuakera zaharrak deitale handiz berreraiki badira ere<sup>59</sup>, oraindik arazo latza planteatzen digute. Batetik azentu sistema ezberdinen arteko aldeak oso handiak dira euskalkien barruan ere, bestetik kronologia oso lausoa eta frogabideak ez oso argiak oraindik. Nekez jakin dezakegu, bada, inguru jakin batean, Barakaldon berba baterako, eta denbora tarte ez zehatzegi batean zein ziren euskararen sistema prosodikoa. Gure

proposamenaren hipotetikotasuna beste gradu batez goitituko litzateke marko jakin bat menturatuko bagenu.

Are durduzagariagoa da galera herskari baten ez baina CV silaba oso baten aurrean gaudenean. Kontsonantea ez, baina silaba osoa galtzen denean motibazioa bestelakoa izan daiteke. Adibide argia ematen digute hipokoristikoeak, Katalanez oso nabarmen: **Francesc > Cesc, Joaquim > Quim, Montserrat > Rat, Miquel > Quell, Salvador > Vador...** Hipokoristiko hauetatik kanpo gutxi ematen da baina kasua ez dira falta: **señora > ñora** edo **despacito > pasito** Amerikako espainolean, kasurako. Ingelesean ere hizketa arinerako ondo testatua da aspalditik<sup>60</sup>. Betiere, galera silabikoa galera fonematiko bikoitza izan daiteke, bi etapa ezberdinetan gertatutako lenizio prozesua alegia.


Hitz hasierako herskarien galera multzo konsonantikoetan ematen da sarriago eta, horregatik, aztertuago dago fenomenoak. Euskararako *muta cum liquida* multzoetan hasierako konsonantea besterik gabe galdu egiten dela esan izan da fonetika historiko

57 Tupusteko galerak ere badira, ordea. Hauetan motibazioa bestelakoa bide da.


58 "... a high accent on the second syllable (which is the most common pattern)" (Hualde 2022).

59 Literatura zabala da. Labetik atera berriak diren azken bi lanak aipatzea nahikoa izan daiteke, beraien bibliografia osoa zehatz jasotzen baita: Ander Egurtzegi & Gorka Elordieta, "A history of the Basque prosodic systems", *Diachronica*, 2022 [DOI: <https://doi.org/10.1075/dia.20066.egu>] eta "Accent shift and the reconstruction of Old Common Basque accentuation" in Haruo Kubozono, Junko Ito, & Armin Mester (eds.), *Prosody and prosodic interfaces*, Oxford University Press, 2022, 29-62.

60 Roland G. Kent, "The Alleged Strength of the Initial Syllable", *Language* 7-3, 1931, 179-189; 1970: Iyn Kyriotiaki, "Aphaeresis in Rapid Speech", *American Speech* 45 (1/2), 1970, 69-77.



**Fonetista hauek diotena da euskararako suposatu den sinplifikazioa contra naturakoa dela eta beste esplikazio bat behar duela. Proposatutako alternatiba euskarak hitz horiek hizkuntza erromaniko baten bitartez jaso izana da.**



klasikoaren markoan: FLOREM > lore, FLAMAM > lama, GLORIAM > loria, CLARUM > laru, planum > lau... Berrikitan, haatik, Ander Egurtzegi santurtziarrak, Juliette Blevensekin<sup>61</sup> batera, teoria horren moldaketa bat proposatu du marko teoriko modernoago batean, kontsonante multzo hauei eman izan zaien azalpidea, sonoritatearen eskala deritzona betetzen ez duenez “striking and unexpected” dela ohartuta. Fonetista hauek diotena da euskararako suposatu den sinplifikazioa contra naturakoa dela eta beste esplikazio bat behar duela. Proposatutako alternatiba euskarak hitz horiek hizkuntza erromaniko baten bitartez jaso izana da. Horrela, kontsonante multzoa ez baina sabaikari bat mailegatuko genuke eta automatikoki despalatalizatu-ko, erromantzezko emaitza sabaikaldua

61 Blevinsek 2004an liburu astintzailea argitaratu zuen: *Evolutionary Phonology. The emergence of sound patterns* (New York, Cambridge University Press). Obran, oro har, soinu sistemen jatorri diakronikoa aztertzen du eta fonologia eboluzionariaren asmoetarikoa batek ezartzen du ezen “new phonetic explanations are proposed for previously problematic instances of sound change and sound patterns”.

sinplifikatuko alegia: FLOREM > \*Ilore > lore, FLAMAM > Ilama > lama, GLORIAM > \*Iloria > loria, CLARUM > \*Ilaru > laru. Proposamen ausart bezain arazotsua da aurrekoa. Arazo bat leuntzen du baina beste bat sortzen, beti ez dagoelako ondoko erromantzeetan forma sabaikaldua eta euskarazko formek latinezko formen bokalismoa eskatzen dutelako.

Toponimian asko dira, jakina, hasierako kontsonantea galdutako kasuak, baina kontua ez da berariaz aztertu. Testatzen oso goiztiarrak baitira, **burdina** osagaia dutenak dira oso interesgarriak. Nafarroako **Urnitz**a (1352) eta Gizpuzkoako **Urnieta** (1397) nukleoni-  
moak lirateke testigantza zaharrenak, nahiz lehenengo osagaia **burnia** dutela frogatu gabeak izan. Zalantzarik uzten ez duten ugarrien artean **burniola** izandako Aiako **Urniola** (1552) edo Zornotzako **Urdintxueta** (1733), gaur egun Burdintxueta dena.

Aztertu gabe jarraitzen dute momentuz aurreneko silaba galdutakoek. **Udaletxe** izan daiteke lekuko isil bat. Ezaguna da **udal** hitza Azkuek ondorioztatu zuela oker Otxandioko **Udaletxe** domonimotik, **udaletxe** ‘herriko etxea’ zela suposatuta. Erdiak erdi ustel. Domonimoaren forma zaharra **Udalaetxe** da eta Dimako Oba auzoko **Kaudalategi** eta Laudioko gardea auzoko **Kaudalena**<sup>62</sup> domonimoen kidekoa izan daiteke, esanahi preonimikoz Arakaldoko eta beste leku batzuetako **Amarretxe** ‘casa diezmera’ bera akaso. Izan ere, ez da arrotza “caudal de diezmos” edo “caudal diezmal” kolokazio lexikala.

Papera eta gure indarrak ahituta, esatekoa esana geratu da. Alde bateko edo besteko aurkikuntzek ebatziko dute autua.

62 Berrio ere Biltor Arbizu adiskidearekin zorretan nago, *La del caudal* (1811) berak jasotako forma eta datazio zaharrena eman didalako. Muguruzak (1997: 21) azalpen zentzugabea ematen dio, ibaiari ematen zailen “rio caudal” izendapen deskriptibotik abiatuta. Legutian **Kaudale** izeneko kalea dugu izen bertsuko beste etxe batean pentsaraz gintzakeena baina beste zerbat ere izan liteke, aurrez aurre **Kaudal** izeneko mendi hegala daukanez gero.



## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

2007: Bañales, Gregorio & Mikel Gorrotxategi: *Toponimia histórica de Barakaldo*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo

2019: "Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga" in E. Santazilia et al. (arg./eds.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte*, Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra, Iruñea, 95-111

2001: Blevins, Juliette: "Where have all the onsets gone? Initial consonant loss in Australian Aboriginal languages" in Jane Simpson et al (eds.), *Forty years on: Ken Hale and Australian languages*, Pacific Linguistics Canberra, 481-492

2017: Blevins, Juliette & Ander Egurtzegi: "Unexpected obstruent loss in initial obstruent-sonorant clusters", *Phonology* 34, 507-522

2007: Curchin, Leonard A.: "Linguistic strata in ancient Cantabria: The evidence of toponyms", *Hispania Antiqua* 31, 7-20

2013: Egurtzegi, Ander: "Phonetics and Phonology" in Mikel Martínez-Areta (ed.), *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction* [Mikroglottika 5], Peter Lang, Frankfurt am Main, 119-172

2018: "Herskarien ustezko ahoskabetasun asimilazioa eta euskal herskari zaharren gauzatea", *ASJU* 52-1/2, 189-206

2003: Fernández Acebo, Virgilio: "Las Fontes Tamarici de Plinio y la ciudad Ptolemaica de Camarica. Hacia la reescritura de un pertinaz equívoco sobre la Cantabria Antigua", *Sautuola: Revista del Instituto de Prehistoria y Arqueología Sautuola* 9, 253-282

2003: García Alonso, Juan Luis: *La península ibérica en la Geografía de Claudio Ptolomeo*, Universidad del País Vasco, Anejos Veleia serie minor

1963: García y Bellido, Antonio & Augusto Fernández de Avilés: *Fuentes Tamáricas*. Velilla

del Río Carrión (Palencia), Ministerio de Educación Nacional

1950: Martinet, André: "De la sonorisation des occlusives initiales en basque", *Word* 6, 224-233

1955: "La reconstruction structurale. Les occlusives du basque" in *Traité de phonologie diachronique*, Berna,

2006: Martínez Areta, Mikel: *El consonantismo proto-vasco*, Argitaratu gabeko Tesi doktora, Herriko Unibertsitateko Filologia Fakultatea, Hizkuntzalaritza orokorra eta euskal ikasketak Saila

2006: "Aitzin-euskararen kontsonantismoa", *FLV* 103, 451-472

2008: "Euskararen hitz-hasierako ahostunketa. Ikuspegi berriak", *Oihenart* 23, 381-400

1951: Mitxelena, Koldo: "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas", *BAP* 7 (4), 539-549

1953: *Apellidos Vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, San Sebastián

1961 [1977]: *Fonética Histórica Vasca*, Diputación Foral de Guipuzcoa, San Sebastián

1997: Muguruza, Félix: "Laudioko 200 izen. Luces y sombras de nuestra toponimia", *Baí. Bertako aldizkari informatiboa* 17, 1-33.

2017: Ros, Ander: "Toponimia eta etimologia, diziplina fribolizatu horiek. Barakaldo, berbarako", *K-Barakaldo* 3, 41-52

2007: Ruesga, Laurentino: "Por la Cantabria romana. De vellica a Camarica", *Altamira: Revista del Centro de Estudios Montañeses* 71, 29-40

2006: Sims-Williams, Patrick: *Ancient Celtic Placenames in Europe and Asia Minor*, Wiley-Blackwell, Oxford | Malden

2000: Talbert, R: *Barrington Atlas of the Greek and Roman World*, Princeton University Press, Princeton | Oxford

2015: Yarza Urquiola, Valeriano: "Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia", *FLV* 120, 345-384